

Maddi Aiestaran Iparragirre

A maila • 1 saria

Jar zaitez ispiluaren aurrean. Begiratu zure begietara: miresmenez, maitasunez, nortasunez. Dastatu biluztasuna. Egin irribarre. Ederra zara. Ederra da zarena.

Inoiz gizartearen kateek erasanda sentitzen bazara, jar zaitez ispiluaren aurrean. Begiratu zerorren begietara eta sentitu harro ikusten duzunaz. Ez dago ezer baliotsuagorik norbera norbere buruaz harro sentitzea baino. Egin korronteari aurka eta erantzi moxorroa. Ederra da biluztasuna. Izan zaitez zeu; zarena izatea da eta zorionaren egiazko giltza bakarra.



Doinua: Gai horrek badu mamia

NAIZENA NAIZ?

1.
Erakusten digutena
beti ez da zuzena,
baina haxe da mundua,
hau daukagun sistema.
Nahiz korrontearen aurka
hautsi mila eskema,
maiz "ondo ari al naizen"
kezkutzen zait barrena.
Zer da iratzarri eta
azaldu behar dena:
izan "behar" dudana edo
neu benetan naizena?

2.
Nor naizen ere sarritan
egiten dut zalantza,
hautatzeko boteretik
nik ez baitaukat, antza.
Nahiz mundua aldatzeko
sentitu esperantza,
beti ahulenaren aurka
egongo da balantza.
Munduak ezartzen digu
erritmoa, norantza,
eta hariei lotuta
egiten dugu dantza.

3.

Harien astuntasuna
bihur daiteke etsai,
hautsi ez gaitu egiten
baina baldintzatu bai.
Geure egiten ditugu
ez dakit zenbat epai,
marrazten gaituztelako
estereotipoz blai.
Gidoiari jarraitzeko
izan behar gara gai,
eta zer, nik paper hori
ez badut antzeztu nahi?

4.

Ez baitakit nortasun hau
nirea den edo ez,
apaindu dute komeni
zaien mila balorez.
Azaltzen baldin bagara
aldatu nahian kodez,
baztertuak izateko
beldurra gudan gordez,
gidoia zikintzen dute
zapalkuntza kolorez,
dantza aske egiteko
hariak moztu ordez.

5.

Askatasuna bihurtu
nahi badugu oinarri,
antzezlanaren gidoia
behar da surtan jarri.
Bat egin eta baztertu
ezean zenbait harri,
oihal atzean hilko da
horrenbeste aldarri.
Nahiz eta mozorrotzea
babes-bide den sarri,
biluztasuna kutsatu
diezaiogun elkarri!

6.

Soinean dugunak sarri
sortzen digu kaltea,
eta ez denez zilegi
min hori jasatea.
Zabalduek diezaiogun
gardenari atea,
txotxongiloen hariak
moztu eta bakea.
Erakutsi ohi diguten
gezurraren katea
hausteko modu bakarra
baita geu izatea.